



## HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA, EAEko UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEETAN GERTATZEN DIREN BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN EGOERETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA APLIKATZEKO ARGIBIDEAK ONARTZEN DITUENA.

### SARRERA

Ikasleen nortasuna askatasunez garatzea eta haien prestakuntza integrala, elkarbizitza demokratikoa ahalbidetzen duten baloreetan finkatzea, ditu, besteak beste, otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoarenak, helburu. Halaber, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharreri buruzkoak, 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, osotasun, identitate eta duintasun pertsonalak ikasleen eskubideetako batzuk dira.

Berdinen arteko tratu txarrak, eskubide hauen kontrako egoerak dira eta, zoritzarrez, gure ikastetxeetan gertatzen direla kontuan hartu behar da. Ez da unean-uneko arazo isolatua, egiturazko sustrai sakonak dituen gertakaria baizik, eta, horregatik, konponbideak aurkitzeko, eskola-erkidego guztiaren ahaleginak behar dira.

201/2008 dekretuak adierazten duenez, ikastetxeetako gobernu-organismoek, irakasleek eta gainontzeko pertsonalak berdinen arteko tratu txarrak desagertzeko lan egin beharko dute eta, horretarako, ezarritako prozeduren arabera jokatu beharko dute. Horiek horrela, edozein zantzu ikusiz gero, zuzendariari jakinarazi beharko diote, Hezkuntza Administrazioari helarazteko.

Ikastetxeek beren gain hartu behar dute edozein indarkeriaren kontrako konpromisoa eta, horretarako, dituzten bitartekoak martxan jarri beharko dituzte, indarkeriazko gertaerak prebenitzeko, faktore positiboak edo prebentziozkoak egotea sustatzeko eta elkarbizitza egokia kaltetzen duten faktore horiek gutxitu edo neutralizatzeko. Halaber, kaltetutako harremanak onbideratzeko ereduak proposatu beharko dituzte.

Azken urteetan hainbat eta hainbat ikerketak elkarbizitzari alderdi positiboetatik heltzea gomendatzen dute. Hobe da elkarbizitzarako lagungarri diren estrategiei arreta handiagoa ematea, elkarbizitzaren kontrako kasuei eman beharreko unean-uneko erantzunean zentratzea baino. Jarrera honek eskola-giro egokia lortzen laguntzen du, baita ikasleek beren garapen pertsonal eta sozialetarako gaitasunak eskuratzen ere.

Ikastetxeetan gerta daitezkeen berdinen arteko tratu txarren egoerak ikastetxeek errazago kudeatzeko, 2004/05eko ikasturtetik aurrera *EAEko ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarren kasuetan jarduteko gida* jarri du ikastetxeen eskura Hezkuntza Sailak. Gida hori bi aldiz aldatu da, arauzko jarduera desberdinei erantzuna eman nahian.

Jarduteko gida horretan *protokoloa* zehazten da, berdinen arteko tratu txarren egoeraren bat ikusten edo ezagutzen den kasuetan ikastetxeek eman beharreko urratsak azalduko dituen.

Eskola-elkarbizitza sustatzeko ikastetxe bakoitzak bultzatu behar dituen jardueren barruan kokatzen da *protokoloa* hau eta, antzemandako tratu txarren kasu guztietan, ikastetxeek ahalik eta azkarren, eraginkorren eta seguruen jardungo dutela bermatzea du helburu.

*Protokoloa* oinarrizko jardueren proposamen bat da eta ikastetxe bakoitzak, haren gorabehera konkretuen arabera eta ezarritako elkarbizitza-arauen baitan, zabaldu eta



sakondu ahal du. Protokolo horrekin irakasleek eta ikastetxeek eman beharreko urratsei buruz orientabide argiak izatea nahi da.

Esan beharra dago maiz protokolo hau Ikasleen eskubide eta beharren 201/2008 dekretuak arautzen duen prozedura zuzentzailearekin batera martxan jarri behar dela.

Horregatik guztiagatik,

## XEDATU DUT:

### **I.- Tratu txarren definizioa.**

Hezkuntza-ikerketak adierazten duenez, hauek dira tratu txarrei lotutako baldintzak: beste pertsona bati nahita kalte egin nahi dion portaera bat izatea, beste pertsona hori bere burua defenditzeko gai ez izatea eta eraso berriro gertatzea.

Tratu txarra dagoela ziurtatu ahal izateko, adierazitako baldintza guztiak bete behar dira. Hala ere, kasu bakoitzaren gorabeherak, inplikaturako pertsonengan dituzten ondorioak eta egoeraren bilakaera denboran zehar hartu behar dira kontuan. Horrela segurtasunez eta zerbaitetan oinarrituta esan ahal izango da tratu txarra dagoela.

Ez dira nahastu behar eskola-jazarpena eta elkarbizitza nahasten dituzten beste egoera batzuk (borrokak, txantxak, noizbehinkako liskarrak, eskola-bandalismoa, gatazkak, diziplinariak eza, portaera txarrak, desinteres akademikoa...), eta unean-unekoak eta azaldutako baldintzekin bat ez datozenak. Kasu horiek 201/2008 dekretuak, ikasleen eskubide eta betebeharre buruzkoak, xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

### **II.- Ebazpen honen helburua.**

Ebazpen honen bidez EAEko ikastetxeetako ikasleen artean antzemandako berdinen arteko eskola-tratu txarren kasuak kudeatzeko protokoloaren aplikazioa arautzen da.

Ikasleen artean tratu txarrak gertatuz gero, ikastetxeetako irakasleek eta eskola-erkidegoko gainontzeko kideek nola jokatu behar den jakitea du jarduteko protokoloak helburu. Protokolo horren bidez elkarbizitza positiboa bultzatu nahi da, tratu txarrari, elkarbizitzaren haustura gisa interpretatuta, ematen zaion erantzunak, betiere, 201/2008 dekretuak azaltzen duen hezkuntza-helburua izan dezan eta eskola-erkidego osoarentzat ikaskuntza bat izan dadin, etorkizunari begira berdinen arteko tratu txarrak ez izatea eragingo duten baloreen arabera elkarrekin bizitzen ikas dezaten.

Protokoloak esku-hartzera eramaten gaitu. Esku-hartze hori honako printzipio hauen arabera gauzatuko da: tratu txarrei buruzko sentsibilizazioa, konfidentzialtasuna, inplikaturako ikasleen babesa, esku-hartze koordinatua eta zuzendariak zuzendutakoa, sistematizazioa, eraginkortasuna eta premia jardutea.

Protokoloak oinarritzko izaera du eta derrigorrezkoa da. Ikastetxe bakoitzak testuinguruaren edo kasuaren ezaugarri berezien arabera egokitu edo zabaldu ahal izango du.

### **III. Jarduteko protokoloaren aplikazioa.**

#### **a) Protokoloaren hasiera.**

Berdinen arteko tratu txarren eremukoak izan daitezkeen portaerak ikastetxeak ikusi edo haien berri izan dituen kasu guztietan emango zaio *protokoloari* hasiera.

Baita salaketa polizial edo judiziala dagoela jakiten den kasuetan edo Hezkuntza Ikuskaritzak eskatzen duenean ere.



Aldi berean, ikasleen eskubide eta beharrak arautzen duen 201/2008 dekretuak xedatutakoaren arabera, elkarbizitzaren kontrako eta elkarbizitzarako kaltegarriak diren jardueren kasuetan, tratu txarretako gertaerak ezagutzetik gehienez hiru egunetara, dagokion prozedura zuzentzailea martxan jarri behar da.

#### **b) Protokoloaren garapena.**

Zuzendariak protokoloaren garapena koordinatzeko funtzioa du, baita protokolo horrek hezkuntza-izaera izango duela eta esku-hartzeak legediaren arabera egingo direla bermatzekoa ere.

Berdinen arteko eskola-tratu txarren kasuetan jokatzeko prozedurak urrats hauek jasotzen ditu:

*1. urratsa.- Tratu txar izan daitezkeen portaerak behatzea. Tratu txar izan litekeen egoera bat jakinaraztea.*

Hezkuntza-erkidegoko edozein kidek, berdinen arteko tratu txarrei lotutako portaerarik edo egoera baten zantzurik ikusten badu, irakasleei jakinarazi beharko die, egindako behaketen ondorioz ikusi diren zantzuak jazarpenaren lehen seinale izan daitezkeen erabakitzeko.

*2. urratsa.- Zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinaraztea. Hasierako bilera. Protokoloari hasiera eman behar zaion erabakitzea.*

Irakasleek edo tratu txarren zantzurik ikusi edo horren berri duen hezkuntza-erkidegoko edozein kidek egindako behaketak edo jasotako komunikazioak ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dizkiote.

Erasotako ikaslearen familiak ematen baldin badio bere semearen/alabaren kontrako ustezko tratu txarren berri zuzendaritzari, bileraren akta egingo da. Akta horretan familiak gertatutakoari buruz egiten duen kontaera azalduko da, baita ikastetxetik, ikaslea babesteko, hartuko diren premiazko neurriak ere. Akta horren kopia familiari emango zaio. Eredua 0 ERANSKINEAN dago.

Ikastetxeko zuzendaritzak, hezkuntza-erkidegoko kideen edo ikastetxetik kanpoko eragileen bidez berdinen arteko eskola-tratu txarren kasuren bati buruzko informazioa jasotzen badu, inplikaturako irakasleak eta informazio garrantzitsua eman nahi duena lehen bilera batera deituko ditu, 5 klase-eguneko epe batean.

Bilera horretan jasotako informazioa aztertu eta baloratu eta egin beharreko esku-hartzea planifikatuko da, tratu txarrik dauden edo ez zehazteko aukera emango duten datu gehigarriak jasotzeko. *Protokoloari* hasiera emango zaion ere erabaki beharko da.

Bilera horren akta egingo da, I. ERANSKINAREN arabera.

Berdinen arteko eskola-tratu txarren kasuren bat gertatuz gero, ahalik eta lasterren emango dio horren berri zuzendariak Hezkuntza Ikuskaritzari.

0 eta I. eranskinak ikastetxean artxibatuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira.

*3. urratsa.- Informazioa jaso eta berau aztertzea. Premiazko neurriak hartzea. Familiei lehen jakinarazpena bidaltzea. A TXOSTENA egitea.*

Gertatutakoari buruzko datuak eta begi-bistako alderdiak jasotzeko prozesua antolatzen hasiko da zuzendaritza-taldea. Hartzen diren erabakiek, betiere, egiaztatzeko modukoak diren datuak izango dituzte oinarri.



Informazioa diskrezioz bilduko da. Kasu guztietan kasuari buruzko informazioak ematen dituzten ikasleen babesa eta isilpekotasuna segurtatuko dira.

Beharrezkotzat jotzen bada, premiaz hartuko dira ustezko biktima babesteko neurriak, haren segurtasuna bermatzeko eta eraso gehiago ez gertatzeko.

Betiere emango zaie familiei kasuaren bilakaerari buruzko informazioa eta komunikazio eta koordinazio sistematikoa izango dira familien eta ikastetxearen artean, egoera behar bezala errazago kudeatzeko eta inplikaturako ikasleen segurtasuna babesteko.

Bilera guztien akta egingo da, bileraren helburuak, parte-hartzaileak, ondorioak eta proposamenak azalduko dituena. Kasuaren datu nabarmenenak eta hartutako erabakiak *A TXOSTENEAN* (II. ERANSKINEAN) idatziz azalduko dira.

#### *4. urratsa.- “A TXOSTENA “ Hezkuntza Ikuskaritzari bidaltzea.*

*A TXOSTENA* bete ondoren, zuzendaritzak Hezkuntza Ikuskaritzari bidaliko dio, 15 klase-eguneko epean, gertaeren berri izan zen unetik kontatzen hasita, tratu txarra dagoela edo ez zehaztu den edo ez alde batera utzita.

*5. urratsa.- Kasuaren araberrako hezkuntza-tratamendua, tratu txarra izan dela adierazteko begi-bistako zantzuak ikusten EZ badira.*

Jasotako datuak aztertu ondoren ez direla tratu txarrak izan ondorioztatzen bada, beharretako portaerak zuzentzeko hezkuntza-tratamendu egokiena zein den erabakiko du ikastetxeko zuzendaritzak, betiere elkarbizitza positiboa sustatze aldera 201/2008 dekretuan nabarmentzen diren puntuetatik abiatuta.

Erabaki hori *A TXOSTENEAN*, behar den atalean, jasota agertuko da.

*6. eta 7. urratsak.- Tratu txarren begi-bistako zantzuak ikusten badira, prozedura espezifikoa eta B TXOSTENA egitea.*

Jasotako informazioa aztertu ondoren berdinen arteko tratu txarrak daudela egiaztatzeko behar adina datu eta begi-bistako zantzu daudela ondorioztatzen bada, egoera konpontzea bideratutako neurriak sartuko dituen jardueraren plan bat planifikatu eta martxan jarriko du ikastetxeak. Plan hori *B TXOSTENEAN* (III. ERANSKINA) jasota agertuko da.

Hezkuntza Ikuskaritzak eskatzen duenean ere egingo da *B TXOSTENA*.

*Tratu txarrei buruzko gidak, VI eranskinean, aipaturako jarduketaren plana errazago egiteko orientabideak azaltzen ditu.*

#### *8. urratsa.- B TXOSTENA Hezkuntza Ikuskaritzari bidaltzea.*

*B TXOSTENA* kasu guztietan Hezkuntza Ikuskaritzari bidaliko zaio, 22 eskola eguneko epean, *A TXOSTENA* bidali zenetik aurrera.

#### *9. urratsa.- Beste erakunde batzuei jakinaraztea.*

Bereziki larriak diren edo delituaren zantzuak dauden kasuetan, jasotako gertaerak Ministerio Fiskalari jakinaraziko zaizkio. Zentzu horretan berean, 201/2008 Dekretuaren 75. artikuluan adierazten dira jakinarazteko argibideak.



#### 10. urratsa.- Kasuaren amaiera.

Kasuak duen bilakaeraren berri emango dio Hezkuntza Ikuskaritzari ikastetxeko zuzendaritzak. Halaber, egoera behar bezala konpondu dela pentsatzen duenean, idatziz jakinaraziko dio.

#### IV. Protokoloaren zabalkundea.

Ikastetxeek berdinen arteko tratu txarrak direla-eta hezkuntza-erkidego guztia sentsibilizatzeko eta *protokoloa* ezagutzera emateko prozedurak jasoko dituzte Elkarbizitza-planetan.

Tratu txarrak edozein esparrutan gertatzen direla ikusi edo jakinez gero, jarduteko arauak ezarri eta neurriak hartuko dira, eskola-erkidegoko kide guztiak jakitun daudela bermatzeko.

#### V.- Hezkuntza Ikuskaritza eta berritzeguneak.

Hezkuntza Ikuskaritzak salatutako kasu guztien jarraipena eta kontrola egingo ditu. Ikastetxeak aurrera eramaten dituen esku-hartzeak ikuskatuko ditu, eta ikastetxeek kasuei buruz egindako kudeaketa ebaluatuko du. Halaber, ikastetxeek, argibide hauen ildotik informazio gehigarriari edo argibide osagarriei buruzko aholkuak emango ditu, baita argibide horietan aipatzen diren prozesu edo dokumentuei buruzkoak ere.

Bestalde, ikastetxeetako zuzendaritzek Berritzegunearen aholkularitza eskatu ahal izango dute, kasu bakoitzean egokiena den hezkuntza-erantzuna planifikatzeko.

#### VI.- Tratu txarrak direla-eta jarduteko gida.


*Berdinen arteko tratu txarrak direla-eta jarduteko gida* Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web orrian dago ikastetxeen eskura, arazo korapilatsu honi aurre egiteko orduan irakasle eta zuzendaritza-taldeentzat lagungarri izan dadin eta, halaber, begirune eta tolerantzian oinarritutako eskola-elkarbizitza egokia lortzen lagundu dezan.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko abenduaren 16an

Arantza Aurrekoetxea Bilbao  
Hezkuntza Sailburuordea



## ESKU-HARTZEAREN FASEAK AZALTZEN DITUEN ESKEMA



**0. ERANSKINA  
FAMILIAREKIN EGINDAKO BILERAREN AKTA**

**1.- IKASTETXEAREN DATUAK**

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

**2.- IKASLEAREN DATUAK**

Ustezko biktimaren edo biktimen izen-abizenen inizialak	
Ikaslea identifikatzeko kodea	
Sexua	
Adina	
Maila/Taldea	

**3.- FAMILIAK KONTATU DITUEN GERTAERAK**

(Saiatuko da familiak kontatu dituen gertaerak ahalik eta zehatzen transkribatzen)

**4.- USTEZKO BIKTIMAREN SEGURTASUNA BERMATZEKO ZUZENDARITZAK HARTUKO DITUEN BEHIN BEHINEKO NEURRIAK**

.....-(e)(a)n, 20..-ko .....-ren .....-(e)(a)n.  
Zuzendaria

Zuzendaria

Aita/ama/Tutorea

Izpta. :.....

Izpta. :.....

# I. ERANSKINA

## IKASTETXEAN EGINDAKO BILERAREN AKTA

### 1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

### 2.- BILERARA BERTARATUAK

Izen-abizenak	Kargua

### 3.- EZTABAIDATUTAKO GERTAKARIAK, USTEZKO JAZARPENAREN GAINEKO BEHAKETEN INGURUAN

*(Eztabaidatuko diren gaien nahitaezko konfidentzialtasuna bermatu behar da, eta kontuan hartu behar da zuhurtasun osoz landu behar direla adingabeekin lotutako gai guztiak).*

### 4. ADOSTUTAKO AKORDIOAK

*(Adostutako akordioez gain, protokolo irekitzeari eta 201/2008 Dekretuak araututako prozedura zuzentzaile martxan jartzeari dagozkien erabakiak azaldu. Baita biktima babesteko hartutako premiazko neurriak, izatekotan erasotzailearekin hartutako esku hartzea, edota garrantzitsua izan daiteken edozein gaiari buruz)*

*Erabakitzen bada aztertutako gertakariak ez direla tratu txar, erabaki hori eragin duten datuak eta ebidentziak, baita hartutako erabakiak, adierazi.*

.....-(e)(a)n, 20..-ko .....-ren .....-(e)(a)n.  
Zuzendaria

Izpta. : .....

**OHARRA:** Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte



## II. ERANSKINA A TXOSTENA

### 1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

### 2. BILDUTAKO INFORMAZIOA<sup>1</sup>

#### - *Esku-hartzeko eskaeraren jatorria*

	Adierazi X batekin
Tutorearen behaketak	
Beste irakasle baten behaketak	
Orientatzailearen/Aholkulariaren behaketak	
Ikaslea	
Familia	
Berritzegunea	
Hezkuntzako Ikuskaritza	
Beste batzuk (zehaztu)	

#### - *Esku-hartzea eskatu zeneko data*

Urtea		Hilabetea		Eguna		Ordua	
-------	--	-----------	--	-------	--	-------	--

#### - *Ustezko biktimen eta erasotzaileen datuak*

a) Ustezko biktima(k) (adierazi pertsona bakoitzeko):

	Lehena	Bigarrena	Hirugarrena
Ustezko biktimaren edo biktimen izen-abizenen inizialak			
Ikaslea identifikatzeko kodea			
Sexua			
Adina			
Maila/Taldea			

b) Ustezko erasotzaileak (adierazi pertsona bakoitzeko):

	Lehena	Bigarrena	Hirugarrena
Izen-abizenen inizialak			
Ikaslea identifikatzeko kodea			
Sexua			
Adina			
Maila/Taldea			

#### - *Bildu diren datuak eta ebidentziak<sup>2</sup>*

--

#### - *Balizko tratu txarren esparruko egoera bat jakinarazi bada, jakinarazpena jaso duen pertsona*

Izena	
Ikastetxean betetzen duen eginkizuna	

<sup>1</sup> Izapideetan eta ikerketetan nahiaezko konfidentzialtasuna bermatu behar da, eta kontuan hartu behar da zuhurtasun osoz landu behar direla adingabeekin lotutako gai guztiak.

<sup>2</sup> Atal honetan deskribatuko dira irakasleek behatutako jokabideak, tratu txarren esparrukoak izan daitezkeenak, behin iturrietatik beharrezko informazioa bildu denean (protokoloko 3. PAUSOA). Beharrezkoa bada, auzia sorrarazi duen tratu txarren esparruko balizko egoeraren jakinarazpena deskribatuko da.

- **Ustezko tratu txarrak non gertatu diren**

--

- **Lekukoak, halakorik badago**

--

- **Ikastetxeak datu gehiago biltzeko erabili dituen prozedurak**

--

### 3. INFORMAZIO GEHIGARRIA

	Adierazi X batekin
Mediku-txostena dago Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Polizia- edo epai-salaketa jarri da, edo Fiskaltzaren aurreko salaketa Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Arartekoari kexa aurkeztu diote Ikastetxeak ba al dauka kexaren kopiarik?	

### 4. BILDUTAKO INFORMAZIOEN AZTERKETA

- **Gertakarien deskribapena<sup>3</sup>**

--

### 5. BERDINEN ARTEKO TRATU TXARRIK BADAGOEN EDO EZ DAGOEN EZARTZEA<sup>4</sup>

- **Ba al dago botere-desorekarik?**

--

- **Ba al dago intentzionalitaterik/errepikapenik?**

--

- **Ba al dago babesgabetasunik/pertsonalizaziorik?**

--

- **Ba al dago diagnosi zehatzik tratu txarrak egon direla baieztatzen duenik, edo zaila da hori zehaztea?**

--

<sup>3</sup> Bildutako datuak eta ebidentziak aipatuko dira modu zehatzean eta objektiboan deskribapenean.

<sup>4</sup> Tratu txarrik badagoen edo ez dagoen zehazteko, sarreran azaldutako irizpideak jarraituko dira, eta kasu zehatz bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartu behar dira horiek aplikatzerakoan.

- **Tratu txarren mota eta larritasuna**

	Ez	Bai	Zehatza	Errepikatua
1. Bazterketa eta marjinazio soziala – Norbait bazter uztea (pasiboa). – Ez uztea parte hartzen (aktiboa). – Sexuagatik, arrazagatik, minusbaliotasunagatik eta abarregatik diskriminatzea.				
2. Ahozko eraso – Norbait iraintzea (zuzena). – Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa). – Goitizenak jartzea (mistoa).				
3. Zeharkako eraso fisikoak – Norbaiti gauzak ezkutatzea. – Norbaiti gauzak puskatzea. – Norbaiti gauzak lapurtzea.				
4. Zuzeneko eraso fisikoak – Norbait jotzea.				
5. Larderia/xantaia/mehatxua – Norbait mehatxatzea beldurrarazteko. – Gauzak egitera behartzea. – Armeekin mehatxatzea.				
6. Sexu-jazarpena edo –abusua eta/edo jesarpen sexista – Sexualki jazartzea edo beldurtzea. – Sexu-abusua gauzatzea. – Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.				
7.- Ziberjazarpena – Telefono mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, txataren eta abarren bidez mezuak bidaltzea norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo horri iseka egiteko. – Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexing), eta gainerako mutilei eta/edo neskei helaraztea edo Interneten esekitzea.				

- **Azterketa globala egin ostean, honako hau ondorioztatu dugu:**

	Adierazi X batekin
BADAUDE TRATU TXARRAK	
EZ DAGO TRATU TXARRIK	

**6.- HEZKUNTZA-TRATAMENDUA EGOERAREN ARABERA**

- **Hezkuntza-tratamendua, tratu txarrik EZ dagoenerako<sup>5</sup>**

--

- **Tratu txaren aztarnak aurkitzekotan, ikasle erasotua babesteko larrialdi-neurriak eta inplikaturako gainerako ikasleekin hartutako neurriak<sup>6</sup>**

--

**7.- FAMILIEI JAKINARAZTEA**

--

.....-(e)(a)n, 20...-ko .....-ren .....-(e)(a)n.

Zuzendaria  
Izpta.:

<sup>5</sup> Behatutako edo salatutako gertakariak ikastetxeko berdinen arteko tratu txar ez direla uste bada.

<sup>6</sup> Atal honetan zehaztuko dira erasotua izan den ikaslearen berehalako segurtasuna bermatzeko neurriak, jarduera-protokoloan aipatutakoen arabera.

### III. ERANSKINA B TXOSTENA (Lehen Hezkuntza)<sup>1</sup>

#### 1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

#### 2.- A TXOSTENEAN BILDUTAKO INFORMAZIOAREN LABURPENA

--

#### 3.- A TXOSTENA HEZKUNTZAKO IKUSKARITZARA IGORRI ONDOREN SORTUTAKO INFORMAZIO GEHIGARRIA ETA DATU GARRANTZITSUAK<sup>2</sup>

Bileretan, elkarrizketetan, ikasgelako behaketetan (soziogramak eta beste teknika batzuk) edo beste toki batzuetan sortutako informazio berria, edo beste iturri batzuetatik lortutakoa.

--

Ikastetxeak eskatu al die laguntzarik Berritzeguneetako aholkularitza-zerbitzuei edo Hezkuntzako Ikuskaritzari?

--

#### 4.- JARDUERA-PLANA

Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea

--

Hezkuntza-jarduerak

- Biktimarekin

--

- Ikasle erasotzailearekin

--

<sup>1</sup> Las características del INFORME B se desarrollan en la Guía, PARTE 2ª: PROTOCOLO DE ACTUACIÓN, Pasos 6 y 7.- Sí se observan evidencias de maltrato: Procedimiento específico y elaboración de INFORME B

<sup>2</sup> Informazio osagarria biltzea, beharrezko irizten bada gertakarien xehetasunak ongi ezagutzeko edo beste datu batzuk biltzeko.

- Ikasle ikusleekin edo, hala komeni bada, ikasgelako taldearekin

**Beste jarduera batzuk**

- Familiekin

- Irakasleekin

**Jarduera espezifikoak ziberjazarpena dagoenetarako**

**5.- BILERAK FAMILIEKIN**

Datak, bertaratuak, bilerako xedeak eta ondorioak eta/edo bileretan hartutako erabakiak.

**6.- TRATU TXARREN ESPARRUKO EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

Jarduera-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak

Jarduera-planaren eta gauzatutako esku-hartzeen ebaluazioa

Zer prozeduraren bidez eta zenbatean behin eman zaion informazioa Hezkuntzako Ikuskaritzari

.....-(e)(a)n, 20...-ko .....-ren .....-(e)(a)n.

Zuzendaria

### III. ERANSKINA B TXOSTENA<sup>9</sup> (Bigarren Hezkuntza eta, ohiz kanpoko egoeretan, Lehen Hezkuntzan)

#### 1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

#### 2. A TXOSTENEAN BILDUTAKO INFORMAZIOAREN LABURPENA

--

#### 3.- PROZEDURA-IREKITZEA, ZUZENKETA-NEURRIAK APLIKATZEKO 201/2008 DEKRETUAREN ARABERA.

Lehen Hezkuntzan ohiko prozedura eta Bigarren Hezkuntzan ohiz kanpoko prozedura jarraituko dira.

#### 4.- JARDUERA-PLANA

##### Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea

--

##### Hezkuntza-jarduerak

- Biktimarekin

--

- Ikasle erasotzailearekin

--

- Ikasle ikusleekin edo, hala komeni bada, ikasgelako taldearekin

--

##### Beste jarduera batzuk

- Familiekin

--

- Irakasleekin

--

<sup>9</sup> B TXOSTENAREN ezaugarriak azaltzen dira Gidan, 2. ZATIAN, JARDUERA-PROTOKOLOARI BURUZKOAN, 6. atalean, hain zuzen ere, "Badaude tratu txarren ebidentziak: prozedura espezifikoa eta B TXOSTENA lantzea" izenekoan.

Jarduera espezifikoak ziberjazarpena dagoenetarako

### 5.- BILERAK FAMILIEKIN

Datak, bertaratuak, bilerako xedeak eta ondorioak eta/edo bileretan hartutako erabakiak.

### 6.- TRATU TXARREN ESPARRUKO EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Jarduera-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak

Jarduera-planaren eta gauzatutako esku-hartzeen ebaluazioa

Zer prozeduraren bidez eta zenbatean behin eman zaion informazioa Hezkuntzako Ikuskaritzari

.....-(e)(a)n, 20....ko .....-ren .....-(e)(a)n.

Zuzendaria